



GERMAN IBARROLA TORRES
ROBERTO DEL CAÑO VALERO
ASUN REZABAL IRAZUSTA
EDUARDO SOTO - ABOKATUA

Foru Aldundiaren Jauregiko 2.3. gelan, 2025eko apirilaren 23an, 18:00etan hasi eta 20:00etan bukatu.

Gipuzkoako Tiro Olinpikoko Federazioan burutzen ari den hauteskunde prozesuagatik, ustezko irregulartasunak salatzen dituen idatzia jaso da jarduera fisikoko eta kiroletako zerbitzuan.

Hauteskunde prozesua ordeztutako funtzio publikoa denez, jasotako gutunean azaldutakoa egia den aztertu behar da.

Horregatik Hauteskunde Batzordeko kideei eta bere aholkulariari etortzeko eskatu zaie eramandako prozedurari buruzko gauza batzuk argitzeko asmoarekin.

Aldez aurretik, 2025eko apirilaren 15ean, gutunaren idazlea den Roberto del Cañorekin elkartu ginen bere idatziari buruzko xehetasunak jakiteko.

Bilera grabatu egin da baino ezin izan da grabazioa gorde.

Aditzera eman da, salaketa idatzian jasotako informazioa argitzeko eta kontrajartzeko aurretiazko eginbidea dela honakoa, eta gai honi buruz ez dela inongo espedienterik ireki. Hain zuzen horregatik, lehen eskutik informazio kontrajarri ahal izateko, jasotako informazioa ez zaie etorri diren pertsonen aurretik jakinarazi.

Aurkeztutako idatzia irakurri ondoren, hainbat galdera luzatu zaizkie aurkeztutakoei eta hauek eta bere aholkuariak erantzun dituzte, ondoren aholkulariak baita hauteskunde prozesuan zehar gertatu diren hainbat gai azaldu ditu.

Hauteskunde prozesuaren 3. Akta, bata martxoaren 20koa eta bestea martxoaren 21ekoa zergatik dauden argitu nahi izan da.

Aurkeztutako hautagai-zerrendan izandako aldaketen zergatia argitu nahi izan da, eta bai lehen eta bigarren txandan aurkeztutako zerrendak

A raíz del proceso electoral que se viene desarrollando en la Federación Guipuzcoana de Tiro Olímpico, se ha recibido en el servicio de actividad física y deportes una carta en la que se denuncian presuntas irregularidades.

Al ser el proceso electoral una función pública delegada, es preciso investigar la veracidad de lo expuesto en la carta recibida.

Por lo cual, se ha citado, a los componentes de la Junta Electoral y a su asesor para aclarar algunas cuestiones respecto al procedimiento desarrollado.

Previamente, el 15 de abril de 2025, nos reunimos con el firmante de la carta Roberto del Caño Valero, para conocer los detalles de su escrito.

La reunión ha sido grabada, pero no se ha podido obtener el respaldo de la misma.

Se ha informado que se tratan de unas diligencias previas de esclarecimiento y contraste de las cuestiones denunciadas en el escrito recibido, sin que se haya acordado al respecto la apertura de expediente alguno. Por lo cual, y precisamente para contrastar con inmediatez la información recibida no se ha puesto en conocimiento de los comparecientes la misma.

Tras la lectura del escrito presentado, se han realizado una serie de preguntas que han sido respondidas por los comparecientes y por el asesor, que también ha planteado diferentes cuestiones suscitadas durante el proceso electoral.

Se ha tratado de aclarar la existencia de sendas actas nº 3 del proceso electoral, una de 20 de marzo y otra de 21 de marzo.

Se ha tratado de aclarar el motivo de la modificación de la composición de una de las dos candidaturas presentadas y la validez tanto de la primeramente



onargarriak ote ziren, Abokatuaren partehartzearen helburua baita Hauteskunde Batzordearen aholkulari bezala.

Gai hauek Kirol Justiziako Euskal Batzordean formalki helegin dira, eta organo honek ebatziko ditu.

Bi ordu luze igaro ondoren, ateratako ondorioa hau izan da:

Federazioetako Hauteskunde Batzordeen osaeraren berezitasunak eragindako formalitateen ez-betetze soilak, garrantzitsuak izan arren, beste eremu batzuetan ondorio larriak izan ditzaketen gai arautuak urratzen badituzte ere, ez dugu ahaztu behar federazioaren hauteskunde-prozesuen helburu nagusia barne-funtzionamendu demokratikoa sustatzea dela, eta horren adierazpen nagusia dagokion federazio-batzarren bozketak egitea dela. Hori dela eta, hautagai-zerrenda bat baino gehiago egonez gero, arrazoi formal edo arautu horiengatik hautagai-zerrendetako bat baztertzea, federazio-organoren gorenari botoa emateko aukera kenduz eta, beraz, barne-aniztasun demokratikoa murriztuz, oso modu murriztailean interpretatu behar da.

Gaizki ulertuak ez izateko hainbat gomendio luzatu zaizkie Hauteskunde Batzordeko kideei, eta hauek, bozketan erabiliak izan daitezen bozka papeletan eredu eta banatzeko irizpideak adostu dituzte.

Eta egintza bukatuta, agerian gera dadin, honako eginbidea sinatzen dugu, sinadura digitalaren datan

presentada como de la segunda y la participación del Abogado como asesor de la Junta Electoral.

Estas cuestiones han sido recurridas al Comité Vasco de Justicia Deportiva que será el órgano que las resolverá.

Tras dos intensas horas, la conclusión ha sido la siguiente:

Los meros incumplimientos de formalidades, aunque sean de calado, debidos a la peculiaridad de la composición de las Juntas Electorales federativas, aunque vulneren cuestiones regladas, que en otros ámbitos pudieran tener graves consecuencias, no debe despistarnos de que el principal objetivo de los procesos electorales federativos consiste en fomentar su funcionamiento democrático interno, cuya máxima expresión pasa por celebrar las votaciones de las correspondientes asambleas federativas. Por lo cual, en caso de existir una pluralidad de candidaturas la exclusión de alguna de ellas por dichos motivos formales o reglados, privando al máximo órgano federativo de la posibilidad de votarla y cercenando por tanto la pluralidad democrática interna, debe interpretarse muy restrictivamente.

Para evitar malentendidos se han realizado varias recomendaciones a los miembros de la Junta electoral, quienes han aprovechado para consensuar la papeleta de votación y los criterios para su reparto.

Y una vez finalizado el acto, para su debida constancia firmamos la presente diligencia a la fecha de la firma digital

TEKNIKARIAK

Asier Coloma

Iñaki Sainz

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Tiro olinpikoko Hauteskunde Batzordekoekin egindako bilera agiria

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
SAINZ PAREDES, IGNACIO
Data / Fecha: 2025/04/24 14:03:07

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
COLOMA UGARTEMENDIA, Asier
Data / Fecha: 2025/04/24 14:17:32



EKS | CSV: JAKI2ee8aa5c-8590-4379-bb22-c1a7c1df07b0

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv>